

IZAKI BIZIDUNAK

1. Zer da zelula? Aukeratu erantzun zuzena.

Izaki bizidun guztien oinarrizko osagaia, bizirik dagoen unitaterik txikiena da.

Gizaki guztien oinarrizko organoa.

Izaki bizidun txikienak eta sinpleenak dira.

2. Ze motatako izaki bizidunak bereizten ditugu, haien zelula kopuruaren arabera?

___ Zelulabakarrak

___ Pentazelularrak

___ Bizelularrak

___ Heptazelularrak

___ Trizelularrak

___ Zelulaniztunak

3. Hutsuneak bete.

Izaki bizidunek hiru _____ betetzen dituzte:

_____, _____ eta _____.

4. Lotu gezien bitartez:

Harreman-funtzioa

Hazteko eta energia lortzeko behar dituzten substantziak eskuratzen dituzte.


Nutrizio- funtzioa

Ondorengo berdin edo antzekoak izaten dituzte.

Ugalketa- funtzioa

Ingurunetik informazioa jasotzen dute, eta informazio horri erantzuteko gai dira.

5. Hau animalia-zelula bat da. Kokatu bakoitza bere tokian.



Zitoplasmak zelularen zati handiena hartzen du. Urak eta ur horretan disolbatuta dauden substantzia ugariak osatzen dute.

Mintza zelula inguratzen eta kanpoaldetik bereizten duen estalkia da.

Organuluak zitoplasman daude. Mota askotako organuluak daude, eta bakoitzak funtzio desberdin bat betetzen du.

Nukleoa zelulak ondo funtzionatzeko aginduak ematen dituen atala da.

6. Zer ezberdintasun daude animali zelula eta landare zelulen artean?

	Animalia-zelula	Landare-zelula
Forma		
Tamaina		
Organuluak Pareta		

Orokorrean, landare-zelulak **handiagoak** dira, eta forma **erregularragoa** dute, normalean, forma prismatikoa.

Mintzaren kanpoaldean **pareta** zurrin bat izan ohi dute. Horri esker, landareek nolabaiteko zurruntasuna eskuratzen dute, eta lurretik gorantz hazteko gai dira.

Pareta: ez.

Kloroplasto izeneko organuluak dituzte. Klorofila dutenez, kloroplastoak berdeak dira, eta horietan egiten da fotosintesia.

Pareta: bai

Zelulak oso txikiak dira, baina tamaina desberdinak dituzte. Gainera, zelula motaren arabera, forma ere desberdina da: esferikoa, prismatikoa, izar-formakoa, laua...

Zelula batzuek forma sinpleak dituzte –esferikoak edo lauak dira–; beste batzuen formak, aldiz, konplexuagoak dira, adibidez, batzuek luzakinak dituzte.

7. Izaki bizidunak zenbat erreinutan banatzen dira?

1

2

3

4

5

6

8. Erreparatu irudietan, irakurri testuak eta lotu gezienez.



Zelulaniztunak dira,
eta elikagaiak hartu
behar dituzte.



Zelulaniztunak dira,
eta beren elikagaia
fabrikatzen dute.



Elikagaiak hartu
behar dituzte, eta ez
dira lekualdatzen.



Protozoоек elikagaiak
hartzen dituzte; algek,
aldiz, beren elikagaiak
fabrikatzen dituzte.



Izaki bizidunak
txikiak eta
sinpleak dira.